

PASARTE HAUTATUA

Jean Paul Sartre 'Atera ezinik' [zati bat]

Garcin– Beraz, ez du sekula gautuko?

Ines– Sekula ere ez.

Garcin– Beti edukiko zaitut begira?

Ines– Beti.

(*Garcin Estellengandik urrundu eta urrats batzuk ematen ditu gelan atzera–aurrera. Brontzezko irudira gerturatzen da.*)

Garcin– Brontzezko irudia... (Laztanten du). Hauxe da momentua, beraz. Hor dago brontzezko irudia, begiratzen dut eta badakit infernuan nagoela. Esan dizuet: hau dena aurreikusita zegoen. Aurreikusita zuten ni hemen jarriko nintzela, tximinia honen aurrean, eta eskua brontzezko irudian pausatuko nuela, begirada guztiak gainean nituela. Irentsiko nauten begirada hauek... (*Bortziki biratzen da*). Ja! Bi besterik ez zarete? Gehiago zinetela uste nuen. (*Irri egiten du*). Hortaz, hau da infernua. Sekula ez nukkeen sinetsiko... Gogoratzen zarete: sufrea, taketak, paririla... Broma bat. Ez da parrilarik behar: Besteak dira infernua.

Estelle– Maitea!

Garcin (*erantzunez*)– Utzi bakan! Bera ere gurekin dago. Ezin zaitut maitatu, begira badugu.

Estelle– Ja! Ederki, ba ez gaitu gehiago begiratu.

(*Mahaian dagoen eskutitzak irekitzeko sastakaia hartu, eta Inesen aurka egiten du, hainbat aldiz sastatzen du.*)

Ines (*barrez ez hasteko borrokan*)– Baina zertan zabilzta, zertan zabilzta, erotu al zara? Ongi dakizu hilda nagoela.

Estelle– Hilda?

(*Sastakaia erortzen uzten du. Momentu bat. Inesek hartzen du berriz eta amorruz sastakatzen du bere burua hainbat aldiz.*)

Ines– Hilda! Hilda! Hilda! Ez labanak, ez pozoiak, ez eta urkak ere. Dagoeneko gertatu da, ulertzen duzu? Elkarrekin pasatuko dugu eternitatea.

(*Irri egiten du*).

Jatorrizko izenburua: 'Huis clos'. **Estreinaldia**. 1944ko maiatzean, Parisko, Vieux-Colombier antzokian.

Pertsonaiak. Ines (Tani Balachova), Estelle (Gaby Sylvia), Garcin (Michel Vitold) eta maiordomoa (R.J. Chauffard).

Den–dena irabazteke

Irati Majuelo

Ez du alferrik Franco Berardi *Bifo*-k hitzurrean esaten: Balestriniren lanaren muina erritmoa da. Ez pausarik, ez komarik, atse-denerako ez du tarterik uzten, Italiako 1960ko hamarkadako langile–borroken historia manifestazio pausora azalduko balu bezala. Hala egiten dute bat eleberririk honetan konpromiso politikoak eta hizkuntzaren esperimenduzkoak, ideiek eta arnasetuak, lilurak eta desengainuak. Azpimarragarria, zinez, Fernando Reyren lana, erritmo eta jario bizia euskaratzen asmatzeagatik.

1960ko eta 1970eko hamarkadetan herrialdeko milaka langilek beren azalean bizi izandako esperientzia komuna bilten du idazle italiarrak liburu bakarrean, pertsonaia bakarrean. Hego-

aldeko langabezia eta miseria induzitutik ihesi, beste askoren antzera Iparraldera lekualdatzen den gizon baten biziera kontatzen du, bere pentsamendu, amets, neke eta haserreak azalaraziz. Balestrinik, hortaz, behargin anonimo eta isilduari ematen dio ahotsa eleberririk honetan. An-



'Den-dena nahi dugu'

Idazlea: Nanni Balestrini. **Itzultzailea**: Fernando Rey. **Argitaletxea**: Katakarak.

Balioen aldarrikapena

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero


Abentura istorioak maite dituztenek hemen daukate neskatu ausarta, bere adiskide zakurrarekin, arriskurik harri-garrietatik onik igarotzen, bizikleta beti lagun.

Ekinean iri diren bitartean, paisaia narratiboa balioekin janzten zaigu, hala nola kontsumismoari egindako kritikekin, auzoko denda txikien aldarrikapen ongi argudiatuekin, birziklatzairen onuren azalpenekin, eta hori guztia hau naturaren zaintzarekin uztartuta... Dena bizikleta gainetik jaitsi gabe, eta tentsio narratiboa gidatzen duten ekintza kateamendua ahaztu gabe.

Baina ez pentsa hemen amaitzen denik balioen aldarrikapena, Zoeren bi gurgipileko zaletasun-

nak bide ematen baitu lehiaren eta joko garbiaren hausnarketak agertzeko, bai eta gizarte kohe-sioa aldarrikatzeko ere, funtsean haurren eta zaharren arteko harremana zein aberasgarri eta beharrezko den aldarrikatzeko.

Gaur-gaurko liburugintzaren ezaugarri nabarmenena da irakurzaletasuna eta balioak sustatzea, ia salbuespenik gabeko ezaugarria, Zank & Zoe bilduma definitzeko balio diguna. Entrenigarriak dira, aurreikusgarriak bezainbeste.



'Mendi beltzeko munstroa'

Idazlea: Mikel Valverde. **Ilustratzailea**: Mikel Valverde. **Itzultzailea**: Ramon Olasagasti Aiestaran. **Argitaletxea**: Elkar.

nimo, izan ere, ez protagonistak, ez langile gehienek ez dute izenik kontakizunean. Are, nahiz eta langilearen topikoei uko egin eta pentsaera eta jokamolde desberdinak erakusten dituen kontaktizunean zehar, sarri langileen ahotsa bat eta bakarra dela ere irudi lezake. Azken-aurreko atazalean, adibidez, greba batzar bat irudikatzen du Balestrinik, non ez dakigun nor hitz egiten duen noiz, denek bata bestearen segidaren egiten baitituzte diskurtsoak. Igual dio kateko langileak diren, orgazainak zein fundizioak, ahots denei garrantzi bera ematen die idazleak. Batasuna da eleberririk defendatzen den ideia nagusietako bat, eta lengoaiaren esperimenduzkoaren bidez ere eutsi nahi izan zion aldarri horri.

Den-dena nahi dugu ahots eta irudien konbinazioa da, denborak eta ekintzak etengabe nahastu diren monologoa. Kapitulu bakoitzak gertaera edo garai bat azaldu arren, kronologia ez da bere horretan mantentzen, eta zaila da ekintza bat noiz hasi eta noiz bukatzen den jakitea, hurrengo kapituluarekin lotura zehazki non egiten duen asmatzea.

Hala ere, liburuak garapen argi bat du narratzailearengan, azken finean, istorioaren muina langile baten kontzientzia hartzea baita. Hortaz, fase desberdinek geruzak bat baino gehiago erakusten dute, eta langilearen irudi homogeneoa hausten da: gaztetxotako inozentzia aurki daiteke («Eta orduan segituan gauza funtsezko batez jabetu nintzen. Ongi janzteko ongi jateko ongi bizitzeko dirua behar zela»), baita alderdi bizizale eta alproja ere. Lanean hasi, baina langileen borroka, eta bereziki antolakuntza, deus gutxi dakien eta jakin nahi duen gaztea ageri da, baina baita Fiateko greba indartsuen bultzatzailea ere. Aipagarria da, batez ere, greba etengabeen osteko matxinada eta langile altxamendua azaltzen dituen azken atala.

Arnasa hartzeko aukerarik gabe, greba orokorren eritmorik jarriko gaitu eleberririk. Hala, bada, egin dezake ispilu-jokorik egungo egoerarekin ere, bizi dugun baretasun ezegonkorri kontrajarririk, etorkizunerako zenbait abisu luzatzen baitzizkigu. Eta ororen gainetik: batasuna, berdintasuna eta borroka.

Haurra bezatzen

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Haurrak bezatu beharra izaten da heldu askoren buruko min eta kezka. Garai bateko makila eta azenarioa bortitz irizirik, lagungarri berrien bila aritzen gara, noraezean ere bai batzuetan. Liburugintza horren jakitun da, eta hartarako propio sortutako mordoak bat lan kaleratzen dira aldirio. Esku artean dugun albuma da horren lekuko.

Oraingoz lau ale eman dituen bilduma pedagogiko baten parte, *Otsoko eta etxerako bidea* irakurleari funtsezko irakaspena ematera bideratua dago.

Humanizatutako animaliekin garatzen den ipuin bat da, egituraz simplea eta ilustrazio ikusgarri handiz jantzia.

Otsoko harroko dabil, bere buruaz lartxo iritziak, eta ezuste-

ko batek lezio garrantzitsua emango dio: elkar lagunduz aterratzen gara aurrera, lagun burukoarekin apaletan eta eskuzabal jokatu-ta. Izan ere, negua iritsita dagoen honetan, otsokoren otso–taldeari kobazuloa lapurtu dio hartz bategi, eta behartutako erromesaldi bat abiatu beharko dute aterpe berri baten bila. Artikoaren mutgetatik hurbil dabilta, tundra zehar, ilustrazio ikusgarrietan adieraziko zaigun eran.

Magaleko irakurketa da, ez ahaztu.



'Otsoko eta etxerako bidea'

Idazlea: Rachel Bright. **Ilustratzailea**: Jim Field. **Itzultzailea**: Amets Sanchez Munain. **Argitaletxea**: Ibaizabal.